

<https://www.ikas.eus/spip.php?article1105>



# Handitzean ere

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Olerkia - Olerkiak - Luixa Giltzu - Aita-amen besta -



Linean argitaratua data honetan: 2010(e)ko abenduaren 20a

---

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guztiak

erreserbatuak

---

*Handitzean ere, oroituko naiz  
nola laguntzen nauzun arboletara igotzen,  
nola goxoki bultzatzen nauzun  
txirrindulaz naizelarik abiatzen.*

*Handitzean ere oroituko naiz,  
nola ari garen, xori eta loreen izenak ikasten,  
liburu ederrenei begiratzen,  
ene ileak dituzula ferekatzen.*

*Handitzean ere oroituko naiz,  
nola gabiltzan sasietan kafiren\* xerkatzen,  
azkon ziloen guardiatzen,  
edo haritzan bilintxen muntatzen.*

*Handitzean ere oroituko naiz,  
nola Xori-lepoko xenderan\* garen ibiltzen,  
nola pagoa dugun lizarretarik bereizten,  
nola konkolotx nauzun, nekatzean hupatzen.*

*Handitzean bihar,  
gaurkoaz baikara oroituko !*

### **Luixa Giltzu**

\*kafira : habia

\*xendera : xendra